

Aztu eziñik
Aberri gaxo onen zoriak
Ixil ixilik
entzuten bere oju larriak

Ikus geldirik
ikusten berak ditun zauriak
ama izanik
ziñopa nola ditun semiak.

ZEUK NAI DUZUNA

Juan Ramon Jimenez.

Otsalar'ek euskeratua.

Zeuk nai duzuna, Jauna ;
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Nai baduzu, arrosa artean,
bizitzaren argi-disdirak
iturburuetaruntz irriz,
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Nai baduzu, kardo artean,
betiko gauaren ondogabetasun
itzaletaruntz odolez,
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Eskerrak begiratu nezan nai baduzu,
eskerrak itsutu nai banazu ;
eskerrak guziagatik ta ez ezergatik ;
izan bedi Zeuk nai duzuna.

Zeuk nai duzuna, Jauna ;
izan bedi Zeuk nai duzuna.